

ADIERAZLEA:	10TIK 19RA ENPLEGU DAUZKATEN ESTABLEZIMENDUEN PARTE-HARTZE PORTZENTUALA
FITXA METODOLOGIKOA	
ARDATZA:	EKONOMIA
ALORRA:	SALTOKIEN DEMOGRAFIA
DEFINIZIOA:	
<p>10etik 19ra enplegu dauzkaten establezimenduen parte-hartze portzentuala udalerrian dauden establezimenduen guztizkoan.</p>	
NEURRI UNITATEA:	
%	
KALKULU METODOLOGIA:	
$\frac{10-19 \text{ enplegu arteko establezimenduak}}{\text{Establezimendu kopuru osoa}} \times 100$	
KALKULU MAIZTASUNA:	
Urtero	
INFORMAZIO ITURRIAK:	
Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID)	
OHARRAK:	
<p>"Establezimendua" ondasunak edo zerbitzuak produzitzen dituen unitatea da, bertan ekonomi edo gizarte izaerako jarduera bat edo gehiago egiten direnean, titular edo enpresa baten erantzukizun pean, toki, lokal edo elkarri lotutako lokal-multzo batean, kokapen topografiko jakin batean. Jarduerak, euren ezaugarriak direla bide, ez badira kokaleku jakin batean egiten (garraioa, eraikuntza, alokairuak, garbiketa, arte jarduerak, etab), jarduerak antolatzen edo koordinatzen diren lekua izango da establezimendua. Kasu horretan, enpresaren edo titularraren egoitza soziala edo legezko helbidea izan daiteke establezimendua.</p> <p>Erreferentziako urtearen aurreko urtean jardueretan modu aktiboan parte hartu duten pertsonen batez bestekoa, eskudirutako edo espezieetako ordainsari baten truke edo enpresa-mozkinen parte baten truke, izango da establezimenduek sortutako "enplegua".</p> <p>Kontzeptu horretan mota guztietako laneskua sartzen da: jabeak, autonomoak eta bazkide aktiboak, famili laguntzak (partaidetza iraunkorra izan edo ez izan), soldatapeko langile finkoak (etengabeak edo etendunak), eta soldatapeko aldi baterako langileak, nahiz eta aldi batez lanean egon ez, edozein arrazoi dela medio, baina lan harremanak irauten badu (gaixotasuna, amatasun baimena, oporrak, greba, lansaioaren erregulazioa, etab).</p> <p>Lanaldi partzialean egiten diren jardueretan, denboraldikoetan, urtebete baino denbora laburragoan egiten direnetan (urte horretan irekitzeagatik edo ixteagatik), soldatapeko aldi baterako langileek egindakoetan edo langile finko etendunek egindakoetan, lanaldi osoan urteko batez besteko baliokidea zenbatuko da okupatutako langile gisa.</p>	